**2023ko MAIATZAREN 2an UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA 5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2023ko maiatzaren 2an, goizeko bederatzietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

**Batzarburua** Xabier Txurruka Fernandez jn.

**Bertaratutako zinegotziak** Jesus Arana Gomez jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Iker Basurko De Miguel jn.
Irune Urbieta Alberdi and.
Itziar Murua Uria and.
Ainara Landa Argote and.
Oihane Delgado Pita and.

**Ez dira etorri** Miren Letamendia Belloso and.
Iratxe Zorrozua Eguiazabal and.
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.
Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Eider Illarramendi Azkue and.
Aitor Korta Etxabe jn.
Ainhize Larramendi Larrarte and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn.

**Idazkaria** Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, hauteskunde-mahaietarako kideak izendatzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

## GAI-ZERRENDA

**Bakarra.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEA**

2022IE150001 espedientea

http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20230502&punto=1

2023ko maiatzaren 28an Toki-Hauteskundeak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, **idazkari** andreak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2023ko maiatzaren 28an Toki-Hauteskundeak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

*Artículo 26*

*1. La formación de las Mesas compete a los Ayuntamientos, bajo la supervisión de las Juntas Electorales de Zona.*

*2. El Presidente y los vocales de cada Mesa son designados por sorteo público entre la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente.*

*3. Se procede de la misma forma al nombramiento de dos suplentes para cada uno de los miembros de la Mesa.*

*4. Los sorteos arriba mencionados se realizarán entre los días vigésimo quinto y vigésimo noveno posteriores a la convocatoria.*

Guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

| Barrutia – Sekzioa | Mahaia | Hautesleak |
|---|---|---|
| 1-1 | A | 757 |
| 1-1 | B | 756 |
| 1-2 | A | 494 |
| 1-2 | B | 497 |
| 1-3 | A | 460 |
| 1-3 | B | 537 |
| 2-1 | A | 631 |
| 2-1 | B | 619 |

| | | |
|---|---|---|
| 2-2 | A | 739 |
| 2-2 | B | 735 |
| 2-3 | A | 811 |
| 2-3 | B | 861 |
| 2-4 | A | 704 |
| 2-4 | B | 658 |
| 2-5 | A | 571 |
| 2-5 | B | 619 |
| 2-6 | A | 650 |
| 2-6 | B | 707 |
| 2-7 | A | 578 |
| 2-7 | B | 478 |
| 2-7 | C | 338 |
| 2-8 | A | 780 |
| 2-8 | B | 801 |
| 2-9 | A | 740 |
| 2-9 | B | 773 |
| 2-10 | A | 538 |
| 2-10 | B | 528 |
| 2-11 | U | 931 |
| GUZTIRA: | | 18.291 |

Mahai bakoitzerako mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordezko izendatu beharra dago, hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) IDA CELEC aplikazioaren bidez.

Zozketan 14 ordezko hautatuko dira (aplikazioak onartutako gehienezko kopurua), mahaiak ez osatzeagatik osoko bilkura gehiago egin behar ez izateko.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren maiatzaren 28an hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Akta honekin batera dago, eranskin gisa, 28 hauteskunde-mahaietako bakoitzerako izendatutako pertsonen zerrenda.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, goizeko bederatziak eta bostean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.